# EUSKARA MUNDUAN

**Denbora bat eman dugu euskarari buruzko informazioa bilatzen, erreportaje honetan agertzen diren datu guztiak aurkitu ditugu. Hemen munduan zenbat hizkuntza dauden, euskara non kokatzen den, euskararen egoera zein den , eta datu batzuk gehiago emango ditugu.**

## Zer adierazten dute koloreek?




Mapa honetako koloreek munduko hizkuntza erabilienak eta hiztun gehien dituztenak adierazten ditu, eta non hitz egiten diren. Euskarak historian zehar, ez du ia onarpen ofizialik izan, ez da administrazioan inoiz erabili bere eremu osoan.

## Zenbat hizkuntza daude munduan?

7.000 hizkuntza inguru dago munduan: euskara, tailandiera, ukraniera, errumaniera, galegoa, kataluniera, bretoniera, ketxua, suediera, latina, finlandera, japoniera, brailea, indonesiera, klingonera, mongoliera, hungariera, poloniera, daniera, norbegiera…




## Zenbat hizkuntza dago munduan? Euskara zein postutan dago hiztun kopuruaren arabera?

Mundu osoan 7.097 inguru hizkuntza daude eta, UNESCO-ren arabera, gutxienez 3.000 desagertzeko arriskuan daude. Hizkuntzak hiztun kopuruaren arabera kokatzen baditugu, 10etik 0ra (10 hiztun gehien dituztenak, 0 hiztun gutxien), (Ethnologuek dion bezala) Txinera 10-ean egongo litzateke, eta euskara 9 inguruan. Nahiz eta ez sinetsi, euskarak 1.000.000 hiztun ditu

## Zergatik ikusten dugu gure burua horren txiki?

Askok ez dute sinesten euskara 9. postuan dagoenik. Baina, zergatik? Arrazoi askorengatik: euskara desagertzen ari dela esaten digute, beste hizkuntza handiagoekin konparatuta oso txikiak garela esaten dute, jende askok ez duelako euskara bultzatzen...

## Zenbat pertsonek hitz egiten dute euskara Euskal Herrian?

Euskararen Datu Baseak (EDB) dioen bezala, Euskal Herri osoan 3milioi




## Benetan arriskuan al dago euskara?

UNESCOren arabera, 2.470 hizkuntza daude desagertzeko arriskuan munduan. Euskarak arrisku hori dauka, baina ez beste hizkuntza askok bezainbeste.

## Nire iritzia

Nik uste dut gaur egungo haurrak eta gazteak saiatzen bagara, euskara urrutiago eraman dezakegula. Baina, horrela jarraitzen badugu, ez dugu asko lortuko; gaur egun ez da euskara asko entzuten kalean.

inguru pertsona daude. Euskaraz dakitenak %43,4-a dira, eta hizkuntza hau hitz egiten dutenak %8,9-a.

## Nola bultzatu euskara

200.000 biztanle; hau da, ¼ baino gutxiago, dira euskal kultura kontsumitzen dutenak. Imanol Epeldek, irakaslea eta youtuberra, euskara bultzatzeko aholkuak ematen ditu:

1. Irakurri euskarazko liburu bat, 2.500 liburu argitaratzen dira urtero euskaraz.
2. Irakurri Berria egunkaria eta Argia astekaria igandetan.
3. Euskarazko antzezlan bat ikustera joan
4. Programatu zure telebista eta jarri ETB1 lehena
5. Badok app-a instalatu, eta euskal musika entzun